

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

322n. zenbakia

2006 zemendia

2006



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

E U S K E R A Z A L E A K

2006-2007 IKASTURTEA

BIZKAIERA 39. IKASTAROA IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 135 €

Izena emoteko tokia: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

Asierea: URRILLAREN 9'AN

39.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO 3 NIVELES Y CONVERSACIÓN

Días: LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 135 €

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLÓN DE LARREATEGI, 14-2 - TELÉFONO 423 53 22 - BILBAO

Comienzo: 9 DE OCTUBRE

EUSKERAZALEAK

Euskal Astea: 2006-11 20'tik 24'ra (8'retan)

20.- ASTELENA: Bertsogintza zelan irakatsi (Legarreta'tar Asier'ek)

21.- MARTITZENA: Juana Albrit Nafarroan (I) (Atutxa'tar Paul'ek)

22.- EGUATENA: Filosofiaren edestia (Olazar'tar Martin'ek)

23.- EGUNA: Internet eta euskerea (Uriarte'tar Ana'k)

24.- Barikua: Juana Albrit Naparroan (II) (Atutxa'tar Paul'ek)

PAZKOA BARRIA

Abraam'en ondorengoak udabarrian bildotsa eskintzen outsoen Jainkoari, urte guztiko asikin lez, eskerrak emoteko.

Baiña Israel egiptoarren menpetik askatzeko ordua etorri zanean, ordu orren aurretik pazko-afaria ospatu eben, pazko-bildotsa jan eben. Ordutik da Pazko-eguna erriaren askatasunaren eguna.

Gero, pazko-giro orretan izan zan eskiña Kristo bildots askatzaillea eta kurutzeko eriotzea jazan ondoren, errien askatzaillea berbiztu egin zan.

Erriaren askatze ori ospatu egiten dogu mezea egiten dogun bakotxean, "itun barri eta betikoaren odola, zuentzat eta guztientzat isuriko dana"

Jaunaren Erriko jazokizun orreik kontuan artu dauz Euskalerriak eta egun aundi orretan, aberri-eguna ospatzen dau.

Gure lurralde guztietatik, eta batez be Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba'tik etorten dira euskaldunak landa zabal batera. Gugaz batera dagoan erbesteko lagunak be etorten dira. An zabaltzen dabez txoznak ugari janariak eta edariak eskintzeko eta, mezea egin-ondoren, an agertzen dira erria nondik nora doan agertzen daben jaurlariak eta alderdien arduradunak: Itzaldi ederrak entzuten dira, eta oiuz pozarriak biotzak berotzeko.

Eta pozezko eguna ospatu-ondoren, bide zabaletatik zear ba-doaz euskaldunak euren errietara eta etxeetara.

Non egin olako batzarra? Non batu ainbeste euskaldun? Gasteiz-ondoko Olarizu mendi-barrenean, antxiña egazki-zelaia izan zan lekuan, egin zan urteetan batzar aundi ori, baiña etxeak egin bear ziralako, Gernika bonbardatu eben egazkiñak urten eben lekua itzi eta Altube mendiaren ondora aldatu zan toki ori, eta aspaldiko urteetan Gasteiz'ko Foronda egazkin-zelaianren inguruan egiten da.


Ez da aitzuta izteko gauzea, egun aundi orretan sortzen dan giro euskalduna, sendi-giroa, alkarrari laguntzeko gogo bizi-bizia eta aurpegiatako barretxu pozarriagaz senideak garala agertzea.

Txalogarria ainbeste asarre eta eraso agertzen daben politikuen giroan, olako alkartasuna ikustea.

OLAZAR' tar Martin'ek



IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)



EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurtan be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiniak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatu-irikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Sari-irabazten ez dabenak be bai ipuiniaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrillean.
- Sariak bost izango dira:

1.ª 300,50 euro	4.ª 120,20 euro
2.ª 240,40 euro	5.ª 60,10 euro
3.ª 180,30 euro	
- Ipuiniak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea abenduaren azkenera arte.

EUSKERAZALEAK

JUDAS' EN EBANJELIOA

San Lukas'ek bere ebanjelioaren asieran diñoskuna ondo jatoriku: Ordurako idatzita egozan liburuak eta agiriak aurrean euki eta aztertu ebazala.

Zeintzuk izan ziran liburu eta agiri orreik? Markos'en ebanjelioa eta eskurik ezku ebillan jaunaren berba edo logien idazki bat. Orregaitik, batzutan Mateo'gaz batera dago biak logia orreitatik artu dabelako, baiña beste batzutan bere iturri bateri jarraitzen dautso eta ez dator Mateo'gaz eta Markos'egaz batera.

Baiña beste ebanjelio asko be zabaldu ziran, batez be gnostikuenak. Oneik be aztertuko ebazan, baiña ez ainbesteko ziurtasunagaz. Gaiñera, geienak 50 urte beranduago-koak dira.

Arazo oneri buruz Xabier Alegre josulagunak atera dau ingurrasti edo kuaderno bat katalanen "Cristianismo y Justicia" taldean eta or agertzen diran burubiderak azalduko doguz irakurleen pozerako eta bide batez gaur ainbeste aitatzen dan Judas'en ebanjelioari buruz argitasuna batzuk emongo doguz.

EBANJELIO APOKRIFOAK

Guk aintzat artzen doguzan lau ebanjelioak (Mt.Mk.Lk.Jn.) eleizeak asieran onartu ebazan, ez ardura-dunen aginduz, eleizetan geien irakurten ziralako eta zarrenak ziralako baiño. Apurka-apurka erriak berak osotu eban kanona. Orra sartu ebezan kartak eta Apokalipsis. Orrelan egin zan orduko alkarteen batasuna. Sartzeko gaitxenak San Juan'en ebanjelioa, apokalipsis ta kartak izan ziran, gnostiku-usaiña eukelako.

Apokrifoak benetako ebanjelioetan dagozan utsuneak bete nai izaten dabez, Jesus'eri buruz geiago jakiteko egarriak eraginda. Esaterako Maria'ren bizitzan au esaten da: Ama-lagunak Maria'k umea izan ondoren, birjiña jarraitzen eban jakin nai izan ebala eta orretarako eskua sartu ebala eta esku ori igartuta geratu zala, umea besoetan artu arte.

Asko eta asko izan ziran, bear ba'da berreun, kanon'era sartu barik geratu ziran apokrifoak eta orreitatik artuta ospatzen doguz eleizetan ainbat gauza. Esaterako, Jesus il-ostean inpernuetara jatsi zala esaten dogu kredoan, Maria ume zala tenplura aurkeztua izan zala diñosku jai batek, Joakin eta Ana Maria'ren aita ta ama be beste apokrifo baten agertzen dira, jaiotzan agertzen diran idia ta astoa, magoak erregeak zirala eta euren izenak, San Jose'ren eta

Maria'ren arteko ezkontzea zelan ospatu zan, Jesus'en anai-arrebak, Jesus'ek umea zala beragaz jolasten eben umeak aurka jartzen jakozenean, ilda izten ebazala...

Apokrifo'rik geienak II gizaldian idatziak dira, batzuk laugarrenean edo geroago. Gitxi batzuk beste ebanjelioakaz batera eta baten bat leneago.

JUDAS'EN EBANJELIOA

Judas'en ebanjelioa 180n. urte-inguruan idatzia da. Nondik dakigun ori? San Ireneo'k III gizaldian aitutzen daualako. Onek be, beste apokrifuen antzera, ez dakaz Jesus'ek guztientat esandako berbak. Judas'eri bakar-bakarrik esanak dira, isillean.

Nok idatzia dan liburu ori? Gnostiko zan edozein kristi-ñauk. Baiña orduko oitureari jarraituz, apostolu baten izena ipinten dautso, garrantzia emoteko. Beste apokrifo batzuk Magdalena'ren edo Tomas'en edo Pedro'ren edo Mateo'ren edo Santiago Txikiaren izenak daroez.

Geienak gnostikoak idatziak dira eta gonostikuengangik urren dagon benetako Ebanjelioa Juan'ena da.

GNOSTIKUAK NORTZUK ZIRAN

Kristo baiño lenago eta geroago bizi ziran judatar batzuk ziran. Marzion eta Valentin doguz ezagunenak. Doktriña oso berezia euken. Ona emen irakatsi batzuk:

- Testamentu Zarreko jainkoa txarra da, Demiurgoa, mundu au egin ebana, gorputza egin ebana, arimea gorputzean espetxean lez sartu ebana.
- Benetako Jainkoa ez da alkartzen "materia"gaz.
- Onek eoiak bialtzen dauz mundura. Jesus eoi bat da.
- Judas'ek Jesus il egin bear eban, txarra dan gorputzetik askatzeko. Ori Jesus'ek esan eutson isillean berari bakarrik.

JUDAS'EN EBANJALIOA

Or naikoa argi agertzen da Judas'en ebanjelioa nondik nora doan.

1994n. urtean artzain batek Ejipto´n (Nag Hamma-di)´gnostikoen ebanjelio-moltzo bat aurkitu eban errada baten barruan. Or inguruan aurkitu eben Judas´en ebanjelioa be.

Beste apokrifuetan lez, emen be ez da agertzen Jesus´en bizitzea, Judas´eri arduragarri jakozan irakatsiak baiño ez. Berak bakarrik dakiz eta Jesus´ek beste iñori ez dautsoz agertu.

Apokrifo oneik gerkeraz idatziak ziran, idazti orreik galdu egin ziran eta gaur daukagun idazkia kopto´z dago. Ebanjelioa II gizaldikoa (180n. urtekoa) izan arren, kopi au IV gizaldikoa da.

ZERGAITIK EZ ONARTUAK

Zio bi eukazan, batez be, orduko Eleizeak apokrifoak ez onartzeko:

Lenengoa: Beranduagokoak ziralako eta esan bear zana esanda egoan. Bigarrena: Jainkari eta Jesus´eri buruz gauza arrigarriak esateko guraria agertzen ebelako edo Jesus bene-tan gizon egiña ondo agertzen ez dabelako.

Orra or Judas´en ebanjelioari eta apokrifoai buruz bea-rezko jakingarri batzuk!

OLAZAR´ tar Martin´ek

POLENTZI MARKIEGI, DEBA´KO ALKATEA

Gurasoak ardura aundiz azi eben Polentzi kristiñauen bidean.

Gazte-gaztetatik izan zan Deba´n luistarren lendakari. Dantza lotua luistarrentzat debekatzeko eskaria egin eutson parrokoari, eun luistarretatik larogiren izenean.

Gaztetatik izan zan gau-gurtzailleen lendakari be eta ale-giñak egin ebazan otoi-zak euskerara itzultzeko baiña ez eban lortu. Orretarako liburutxu bat be atera eban, beste batzukaz batera.

Deba´ko Ostolatza Eskolak zarata aundia atera eben bere eragiñari eskerrak. Eskola ederrak izatea lortu eban eta orre-tarako edonon dirua eskatzen eban, esaterako Giotzaiñari eta katoliko-ekintzari. Gasoliñetan aberats batek eralgi leikean beste eralgi eban. Ona emen Mateo Mujika gotzaiñaren ber-bak:”Yo certifico...que solo él trabajo eficazmente por los niños de Deba” (1937-10-31).

Itziar´eko Amaren maitale aundia zan eta guda izan ez ba´litz Itziar´eko Ama koroatzea lortuko eban eta berau jarri-ko eban itxas-ertzeko erri guztien Zaindari.

Guda-aurretuan 15 000 gazte joan ziran Arantzazu´ra eta orretan be lan aundia egin eban.

Josu-lagunak legez erbesteratuak izan ziranean, bere etxean bat gordetea nai izan eban. Automobilla artu eta Loiola´ra joan zan josulagunai laguntzera. Pozik artu eben

Loiola´n eta San Ignazio´ren gorpuzkin nagusia berak zain-du egiala eskatu eutsoen: Buru-azurra, atzamarra eta ontzi baten odola eta giltz bat ziran.

Gudaldian aurrekoai laguntzen ona izan zan:

- Araba´ko gobernatzaille zan militarra, Garcia Benitez gudalburua, onen emaztea eta alabea, Donostia´n, arris-kuan egozala jakin eban . Deba´ra ekarri ebazan, Loio-la´n Monzon´egaz berba egin eta ara eroan ebazan eta an egon ziran gudaldiaren ostera arte ostenduta.
- Hernando Larramendi España´ko karlista guztien buru zana, Zarautz´era ekarri eban, gero Deba´ra eta gero beste aldera eroan eban.
- Jose Maria Aristi´k laguntza eskatu eutson. Erantzuna: Atso eroan neban Larraimendi. Arestik gauza bardiña eskatu eutson. Ez dot bear besterik arazoa isillean euki-tea baiño. Eta eroan eban beste aldera
- Jose Altzibar abadea C.N.T´koak arrapau eben. Billa asi zan Polentzi. Baiña ilda aurkitu eban.

ABERTZALEA

- Dueso´n, epaillearen aurrean auxe esan eban berak:”Buru argia neukanetik beti izan naz abertzalea”.

GUDALDIA

- Deba´ko eskolan eztabaidan esan eban:Nire oiñarria “Gora Euzkadi” da.
- Futbol-talde bat sortu eban eta “Euzkadi” izena ipiñi eutsen.
- Donostian ikastetxean beti aldetu eban abertzalñetasuna.
- Mendigoizaleen taldea be sortu eban eta Jainkozale ta - Eusko Deia zabaltzeko bidea izan ziran.
- Amazortzi urtekoa zala EAJ´ren idazkari egin eban.

ALKATE

Deba´n Errepublikaldian Udal Batza eleizara joaten zan, azkenean ziñegotzi abertzaleak baiño ez ziran joaten beragaz.

– San Roke , Deba´ko jai nagusia da eta Polentzi ardura-zan artean eleizpidea egiten zan. Aste santuko eleizbi-deak be bai.

– 1931n. urtean ekiñaldi bat egin eban erriko jaiak eus-kalduntzeko.

– 1932-33 Ostolatza Eskoletara ikustaldia egin eban Queipo de Llano´k eta Prieto´k, Alcalá Zamora´gaz batera. Ez eutsen itzi sartzen abertzaleai eta berak atera arte lagun-du eutsen.

– Baserritarren laguntzaille izan zan beti: Itziar´etik Las-tur´era bide zabala egin eban, pelota-lekua be bai egin nai eutsen baiña ez zan eldu orretara.

– Lan aundiak eta onak egin ebazan baserrietan eta uri-buruan.

Guda asi zanean alegin aundiak egin ebazan guztiai laguntzen, errian eta erritik kanpoan. Durango´ko bonbake-

tara be joan eta antxe egon zan zaurituai laguntzen eta Ger-nika´ra be joan zan, Alberto Onaindia lagun ebala, bonbake-tearen egun beratan.

DUESO´n

Askatasunaren itxaropena galdu ebanean, bere barruan batu zan eta ez eukan beste guraririk eriotzarako bere burua ondo gertatzea baiño. Etxekoai eskutitz ederrak egin eutse-zan.

Epaitu eban, bere anbartzaletasuna argi autortu eban.

Eriotzarako epaia artu ebanean, ez ebela ilgo esaten eutsen, orrelan epaituak asko ziralako, baiña berak esaten eutsen. “Ziur nago zortzi egun barruan Jaungoikoaren aurre-ra joango nazela”.

1937-10-14 egunean etorri jakozan bere gelara eta atera eban aldik. Goiz-aldian ilgo ebela esan eutsen. Bera bare egoan eta beragaz gau aretan egon ziranak be eskertiarrak izan arren, bera ikusita, biurtu egin ziran eriotzeari ain bare begiratzen eutsolako. Goizean guztiak autortu eta jaunartu eban.

Goizeko 7´retan koñaka eskiñi eutsen, baiña ez eban artu. Guztiai parkatzen il ziran besoak zabalik, agurtza esku-man ebela”Orain bota zeinkeez tiroak”.

OLAZAR´tar Martin´ek.



EUSKALERRIA (I)

SARRERA:

Euskalerrigatik berba egiten dogunean, sentimentu edo biozkada sakonagaitik berba egiten dogu. Beren gizartea, senitarte, etxeokak edo pamili batekoaren jatorrizko aideak Kromañonetik senditzen garalako.

Euskal-gizarte oneri, berezko Sentimentu orreik dira azken baten errizaleta- sun edo abertzaletasunaren sentimentuak emoten dautsiena.

Berezkotasun onetan danok arduradun jaiota, ikas-egipidearen azturak beren etorkizuneko lojikan beteta, beartu egiten gaitu erri ta etxeak daukan mailla guztietako bearkuntzan, eginkizun guztiak zentzun aundian eta ekanduzko-oreka baten babesteko edo zeatzasuneko ardurak beteteko.

Eta orretarako: "Oiturak, izkuntza eta izatasunaren Nortasuneko ekintzak" legezko bereiztasunaren lotsean bete bear dogu.

Artu-emon orreik berezkotasunean eginda, erri-gizarteen arteko ezinbesteko artu-emonetan, alkarkizuneko obekuntza batera eroaten dabez, bere ondorioz gizartearen eskubideko arduran egin bear diran ekintzak, demokrazizko ekan- du baten eginda.

Euskaldunak asieratik, lotsaren arduran berezko autabide-lojikan ezargiñan- etik, gure zentzuren orekara bideratu gaitu beti menpekotasunik gabe.

Europa`n, Frantzia ta Espaiña Euskalerraren aurka oso berandu (1.789`tik aurrera) baiña, eurak aukeratutako Lateritasuneko batzangotasun onetan, euren gogamenean antolatuta dagozenak, gizartearen arrazoi guztietako oarmen edo sentimen guztiak euren kontrolpean eukiteko, erlauntz etxebaten, esku-arrotz bat sartzea bezala da. Erlauntz etxe orreit- an, bere erl-ama ta lan egiteko erleak, bat-eginda ba-dagoz indar aundiko alegiñean, al izango dabe erbestetik etorritako kanpotar ori euren gandik urrindu. Bestela, erlauntz-etxe ori indar gitxikoa izaten bada, arrotza garaille edo irabazle ager- tuko da.

Eta ori da zeatzu gura dotena gizartearen arlo ezberdiñe- tan adi-erazita.

IZKUNTZA ta OITURAK:

Euskerea da gure izkuntza. Eta oiturak, arbasoetatik zear bizitzaren ekintzan jakiñaren egarriz aztura-bidetik, gure ari- maren ulermenean lotsagizuneko ardura aundi baten, berez- kotasunean lortu egin doguzan garaipenak oiñarritu egin doguzelako. Bien artean osotzen dabe gure izatasunaren Nortasuna.

Europa`n zaarrena dana eta oraiñarte Auñamendi kateak, mendi ta baserriak bere senean zaintzea lagundu

ba-eusku, gaur zabaltasun aundi baten agertzen gara, gure Nortasunaren bereiztasuna naazpiltzeko galbidean izan lei- ken lekua dana, makaltasuneko egoera baten agertzen bagara.

Makaltasun ori sortu leiken gauza da, gure bizitza, Mundu onek daukan mozkin eta ordezkari- zarako asmatzen doguzan aginduzko on-guztiak, jan-edate ta senezko gauzak, xautzailletasuneko (derrochador) eta zentzun-gabeko ega- rritasunera bideratzen ba-doguz, bearrezko neurritik kanpo geratzen diralako.

Ni ez naz arrazakerietan dabillen gizona, JAINKOA`ri begira BERE-LEGEA`ren zentzua, ulertzer a irixten saiatzen nazelako.

Orregaitik, eldu-nazen begira-tokitik argi-ago ikusten dira erri-gizartearen naazpiltasunak, Nortasunaren bereiztasu- nezko aztura-bidetik aldatu egin diralako.

Esaera bat, izkuntza bien arteko itz bategaz adierazten ba-dogu, itz ori zentzun-bako esaera baten geratzen da, beren esaera ez dalako eltzen ulermenak eskatzen dauan zeatzasunera, erdi-purdiko esaera baten geratu dalako.

Ekintzako oituran eta jan-edatean bardin, gure egarriak arlo bietan gaurko erreztasunagaitik xautzailletasunera bide- ratzen ba-doguz, gure konortea edo sentimena bere ondo- riozko ekintza arduragabea naaztuta, iretsitasunaren kazka- rraldiko (obstinaciòn) neurrian agertzen dalako.

NORTASUNA:

Euskaldunak, gure asierako arbasoetatik gaur-arte, eten- bako ekiñaldian ikas-bidearen azturan, zentzuzko-zeatzasun eta askatasuneko NORTASUN aundi baten agertu gara.

JAINKOA`ak billuzik bialtzen gaitu bizitz-onetara NOR izateko eta laster gogoratzen gara ez dala txantxetan ibiltze- ko bizitza, ainbeste nortasun artean kokatuta agertzen gara- lako.

Nor-bera izateko or ! agertzen da leenengo ikas-gaia, Lur-bizi au danoen eskubidekoa izanda, bear-bearrezko ordezkari- zaren ardurapean kokatzen garalako.

NORTASUNA`ren izaera, orregaitik da bereizgarria. Beren borondatean dauelako, gauzak zentzuzko legean egin edo NORBERKERIAN oker egitea. Bereiztasun ori, nor- beragandik asi-ta EUSKALERRIA`ren izaerara arte eltzen da.

Euskaldunak JAINKOA`ri, esker aundiak emon bear dautsaguz, aukera aundiak emon dauskuzalako Auñamendi- kateko mendietan gure baserriak kokatzeko.

ANTILLAK

Iñork ez du lantzeko lurrik nai Danak urrea nai dute Piraten itsasoan: Antillak

Kolon'ek ikusitako lenengo ugarteak da, dakigunez, Guahani. Geroago, iru urrengo ugarteak bere erregeai eskeintzen dizkie. Isabela'ri, Fernandina'ri eta Juana'ri. Onela, Kolon'en egunkaria Antilletako au tapizgintza bezelakoxea gertatzen da. Orrialde auek Castilla'n irakurtzean, Castilla Amerika'ko irudia bizitzen asten da. Eta orain, Kolon ba dijoa Castilla'ra.

Itzulian da berriro Kolon. Ekaitz batek Portugal'eko kostaldera bidaltzen du. Eta Castilla'ra irizten da. Amazazpi itsasontzi dira. Milla ta berreun burruka-gizonez eratua.

Errege-ordeko egiten dute Kolon, ta gaiñera, Jaurleri ta Almirante. Orra orain erregeña aginterri baten buru. Azukre-kañaberen aziak ekarri-erazten ditu.

Ontzi kapitana Santa Maria da, mariñelak "Mari Galante" deitzen diotena. Burruka sortzen da inditarrekin. Emen gertatua aztikeri utsa ote da?

An, "Eguerri" deitutako gotor-lekuan utzi dituan (Diego de Arana buru), lenengo iraskunderen kideak onik ote daude? Ez da inguruetan kristau-alerik ageri.

Ibai baten inguruan bi gorpu azaldu omen dira. Inditarrek, ustez munduko gizonik otzanenak, ez dute kristau biziirik utzi. Ez dago zalantzik. Etsai lurra da.

Urrez bete aurkitu uste zuten kupela zuten zupela utsik dago. Dramaren azkena da. Urrea, urrea!!! Auxe da aurkitu nai zutena. Metaturik aurkituko zutelakoan... eta ezerez! Danak marmarrean asi dira. Urkatuko dutelakoan daude danak.

Kolon'ek bere anai Diego'ren menpean dana utzi eta lagunik aundienak zituan zoriketazalekin itsasora jotzen du eta bidez dijoala Jamaika aurkitzen du.

Okerrena oraintxe. Danak urrea nai dute. Ez lurrik! Drama Almirantearen animan. Orain ez dira Kolon eta Diego bakarrik. Irugarren anaia, Frantzi-aldean zebillena etorri zaie. Guztia okerrera txirristan dijoa. Asarrea aundia da. Laiñu-aizea aundiagoa.

Eta prailleak marmarrean: Jainkoare'n zigorra! Urtebete-tsu lenago, aintzaz koroiatzea zetorrelakoan Kolon pozik zan.

Orain buruz-bera dator. Erregeen laguntza du, ez ordea erriarena. Lagun dituanak italiarrak dira. Danak aurka ditu. Etsiak artuta dago. Zoritxarrak abaildu digu. Jamaika'ko espetxean sartu dute.

Nun da erregiña? Galdetzen du. Il zorian aurkitzen da Eta bere senarra emezortzi urteko neska gaztetxo batekin dabil, maiteminduta. Egundoko asarrea dabil sendian. Ezueria areagotzen zaio Farnandori.

Ameriketako albisteak oso txarrak dira. Ta kristobal ez dago diruz gaizki baiñan lagunik gabe. Eta il zorian. Au da bosgarren bidaia. Azkena. Oraingo bidaian ...nora dijoa... ba? Azkenera. Egiatzkora. Paradisura!

Zorionez, mundu berri au ez da Kolon'ek azken gutunetan aierazia. Oso alderantzizkoa baiño, piña... Ori bai! Erregein eratsu bat ez kotsaraztekoa. Isabel erregeña iltzen denean..., Kolon desagertzen danean, Castilla euskarrik gabe... Ez dago ezer egiterik. Aragoi aldean errege arroputz bat, errege-gisako, eta erregein ero bat. Gizona berrogei ta iru urteduna, neskatxa batekin bateratua, bazkari ta jai-zalea. Itsas bestaldean ere beste mundu bat sortzen ari da: Santo domingo (edo "españarra") deitua. Castilla'k Ameriketan dituan bezelakoxeak dira, irudikoak. Txikitan bertan lardas-katzen da drama osoa. Santo Domingo, Ameriketan eraikitzen dan lenengo uri egonkorra da. Jaurlaria, bereala errege-ordeko deituko dana, jauregi batean bizi da. Iririk ederrenetakoa bezelaxe da. Mundu berriaren ikurriña iru koloretakoa azaltzen da: inditarrena, españarrena eta afrikarena. Bizitzera bertara dijoazenak ez dute beltz kolorekorik nai. Aita Las Casas ere ortan da. Prailleak berak ere bai.

Konkistatzaile berriak azaltzen dira: Ponce de León Florida'n, Hernan Cortes Mexiko'n, Indietako lenengoko konkistatzailea, Diego Velazquez Kuba'n, Pizarro Perú'n. Inguuru auetan egiten dira lenengo armak, lenengo urrea jasotzen da lenen inditarrak erailtzen dira, aitzo ta sastakaiak zirt-zart dagite aidean eta sarriago biraoak.

Venezuela'n lenengo txirlariak ikusi dira.

Santo Domingo'ko altxor-zaiak erotu bear du. Ta bein, gatzaren orde zurre-autsa ipintzen du gatzontzietan. Fraille jeronimoak oso almentsu datoz.

Kastilla'n bezela egun batzutan Fernando da agintari, bestetan Felipe eta geroago Cisneros kardenala. Urtetan barrena kastellano zorritsuak ugarte berritu egin dute. Juan de la Cosa kosmografoak mundu berriaren mapa egiten du. Inguruan dabilkio Pizarro, bizi guzian txarri-zai ibillia. Orain Ameriketan dabilkigu berriz ere eta ernamimean Ameriketako askatasunaren ispiritua dakar.

Mundua bueltaka dabillearik, Pizarro'k Balboa atxilotzen du. Abogaduak epaibide azkarrez eman dute azkena. Erabatekoa. Moztu dezaioleta burua. Jaurlariak eman du agindua. Ta orrela, burua makurturik iltzen da Nuñez de Balboa, Ozeano paketsuaren aurkitzailea. Karlos V'garrena eta lagunak iritxi dira Kastilaren odola zurrupatzera... eta bejondeiela. Alakoxe da eta izan da Castilla. Eta Castilla'ko lurretatik eta bertako gizonengandik datorrenaren oso antzeko.

EGAÑA'tar GOTZON

BARANDIARAN'EGAZ BERBAZ

AITZOL

Donosti'ko gudaldia galdu eta Irun'ekoa asi zanean etorri zan Belok'eko monastegira Jose Arstimuño (Aitzol), 1936-09-25 egunean. Atxe gengozan, diño Barandiaran'ek. Gure alkar izketak gudeari buruz izaten ziran.

Ille orren 27n. egunean luzaro berba egin neban Aitzol'egaz: Guda asi zanetik eta Gipuzkoa'tik urten arte aletin aundia egin eban euskaldunak orduko gobernuaren aurka joan ez zeitezan. Eritxi ona eukan guda asi ebenai buruz eta ez eban uste euskaldunen aurka egozanik.

Donostia'n aletin aundia egin eban matxin-zaleak salbatzen. Gorriak euren billa, espetxeetatik atera eta ilteko asmoaz, etorten ziranean, Aitzol'ek eurak salbatzeko alegiña egiten eban eta salbau be egin ebazan Juan Olazabal, Enrike Zulueta eta emaztea eta beste asko. Zerrenda eder bat egin lei gure abertzaleen laguntza artu eben eskoitarrakaz Motriko'ko Kondea (Dr. Areltza) euren artean dala.

Gaur katedrala dan eleizearen azpian egozan fazisten izkilluak eta orduko parrokoak eskatu eutsen Aitzol'eri izkillu areik andik ateratzea lortzeko. Egun beratan lortu eban ateratze ori.

Gero Iparraldera joan zan Aitzol eta euskaldunengandik gudea alboratzeko alegintzen jarraitu eban. Napparroa'ko guda-agintariakaz berba egiteko Bera'n alkartzea eskatu eban, baiña erantzuna au izan zan: -"Aristimuño ori baitu egizue". Albistea emon eutsoenean barriro joan zan mugearen beste aldera. Orduan konturatu zan zer jazoten zan guda sortu ebenen inguruan euskaldunen aurka.

Aitzol ziur egoan Franco'k guda irabaziko ebala eta oiñarria onetan ipinten eban: Europa'ko laterri guztiak, Errusia izan ezik, bere alde eukazala.

Urrillaren 5n. egunean Belok'en erretiro-eguna egin zan eta abatak guztiak dei egin eutsen kafea artzera. Abade guztiak egozan euskaldunen aurka, oneik komunistakaz bat egin ebela eta erlejiñoaren alde etorren Franco'ren aurka egozalako. Arstimuño'k au esan eutsen:"Euskaldunen aurka gudea egin ebala Franco'k eta euskaldunak euren buruak zaintzeko jarri zirala erkal edo errepublika-zaleen alde. (España'ko gotzaiñak eta Europa'ko giroak okerrera biurtu eban erbestekoen eritxia).

Belok'en illebetete geiago egotea eskatu eban Aitzol'ek eta baimen ori emon be egin eutsen Abatak

Urrillaren 9n. egunean Baiona'ra joan zan Aitzol eta batera Barrandiaran be Sara'ra. Urrillaren 17n. egunean Barandiaran Sara'tik Belok'era urteteko egoala jakin eban onek matxin-zaleak Aitzol itxasoan arrapau ebela.

Zerbait geiago esan daigun Aitzol'en baitze oneri buruz.

Aldi aretan Aitzol apur bat deslai ebillan eta Galerna itxas-ontzian etorren Iparraldetik Bilbao'ra eta bidean arrapau eben 1936-09-17 egunean. Ernani'ra eroan eben eta antze il be tiroka, berrogei urtekoa zala.

ONDORENAK

Auxe da Rafael Eriz'ek dakarren testigantza: Abertzale ez diranak esan dauste eta neuk be egizat daukat, euskal abertzaleak gudara sartu ez ba'ltzaz, gure eleiza eta lekaide-lekaimeak eta euren etxeak aurrean erabiliak izango zirala eta gure abade eta lekaide-lekaime ta katoliku asko eraillak izango zirala Bizkai eta Gipuzkoa'ko erri guztietan" .

Belok'eko mai aretan beragaz egozanak be batera etozan (1936-09-26'an, Belok'en)

Gaur onartzen dogu eritxi ori?

Egia da, guda-aurretik Euskalerrian ez zirala egin kalte ain ikaragarriak, gitxienez abertzaleak aginpidea artu ebenetik.

Zergaitik ori? Eleizak naiz erritarrak zaintzen Eusko Jaurlaritzaren ertzaiñak egozalako.

Asieran, arazoa kontuan artu arte, ainbat kalte eta erailketa egin ziran "milizianu" españatarrak egille zirala. Eurak egin eben, esaterako, "Kabo Kilates" itxas-ontziko erailketa. Emen il ebezan Mungia'ko Basozabal anaiak, naizta abertzaleak gertu agertu laguntzeko. Eurak ez ei eben nai izan laguntza ori. Kartzela batzutan be izan ziran erailketak.

Baiña euskaldunak euren eskubideak artu ebezan ezker, alboratu ebezan "milizianu" areik eta garbi jokatu eben. Euskaldunak ez eben iñor erail, epaikundeak eginda be ez.

Euskalerria Franco'k menperatuta gero jazotakoen erantzukizuna beste batzuk dauke, españatarrak edo onein alde jarri ziran euskaldun faltsoak. Eta ez da erantzukizun makala.

Castro Albarran abade españatarrak idatzi eban "Este es el cortejo" deritxon liburu lotsagarria. Onek euskaldunen aurka esan-alak esaten dauz liburu orretan eta orrialde baten jazokizun au dakar: Guda bizi egoala, Jose Antonio Agirre bere maian ei egoan eta eriotzara epaitu batentzat parkemena eskatu ei eutsoen eta Agirre'k Castro Albarran'ek diñoa-ñez, auxe esan ei eban mai-gaiñean eukan kurutzeari begirata: "Parkatuko dausat onek esaten ba'daust." Eta diño idazleak: "Kurutzek, antza, gauza gitxi esaten eutsen Agirre jaunari".

Iñok ez dauko eskubiderik izen ona orrelan kentzeko. Guztiok dakigu Agirre'ren sinismena noraiñokoa zan.

Jazokizun au guzurrezkoa dana argi dago. Ez dago ezer azaldu bearrik.

SALMOAK

BARRI ONAREN ZATIA (LK 1, 26-39)

“Testo originala Griego’k diona”

1

Lucas Santuak esaten digu
Ebangelio liburuan.
Jaunaren naiak Goi angeru bat
Gabriel bialdu zuan,
Galilea’ko Nazaretera
birjiña bat an zeguan,
esposatua zan eta andik
seigarren illa zijuan.

2

Senara zuan Jose izenez
Dabid’en jatorrikoa,
eta birjiña emaztea zan
Maria izenekoa.
Gabriel onek Mariari zan
onela esandakoa.
Jainkoak salba graziz betea
zurekin Jaun betikoa.

3

Bedeinkatua zera Maria
andre guztien artean!
au entzuteak, zer ote zion
jartzen du bilduz betean.
Goi aingeruak. Ez bilduz izan!
esan zion ikustean,
Orra Maria grazia argitu
zenduan Jainkoz batean.

4

Sortuko dezu seme bat eta
ipiñi Jesus izena,
Au izango Alguztidunan
seme deituko diena.
Jaun da Jainkoak emango dio
aulki Dabid’ek zuena.
Bere erreinua izango da goi
ta azkenik ez duena.

5

Mariak auxe aingeruari
esana zion orduan,
Nola gertatu leike gauza au
birjin biziaz munduan
gizasemerik ez ikutzeko
nere itza eman nuan!
Santu Gabriel Mariak zeukan
etxe barruan onduan.

6

Aingeruak au erantzun zion
Jaun Espiritu Santua
etorriko da zu izatera
Alguztidunak artua,
Bere bitartez izango zera
Ama Birjin gelditua,
izango dezu santua seme
Jainko Semea deitua.

7

Ara Isabel zuk lengusua
bizi zan agor zartuta,
eta seigarren illean dago
Jaunak seme bat sortuta,
Jaunarentzako gauza eziñik
ezin leike agertuta.
Andre Mariak sinistu zuan
gurekin errukituta.

8

Mariak esan zuan orduan
apaltasunez onela.
“Emen naukazu Jaunaren mende
serbitzaria naizela,
Egin bedi ba neregan ori
esan didazun bezela”.
Ta aingeruak laga egin zuan
Jauna Gizondu zerela.

SANTU MATEO'K
(1.18-2 arte)

“Testo originala Griego'k diona”

1

Santu Mateok esaten digu
Evangelio liburuan.
Jesukristo'ren jaiotza degu
era onetan munduan.
Esposatua zan bere ama
Maria izena zuan
gizaseme bat Jose izenez
senarra zeukan onduan.

2

Alkar ikutu baiño lenago
au izan zan gertatua
Jaun Espiritu Santuak zuan
Marian aurra sortua.
Bere senarra Jose zalako
On utsa edo justua
etzuan eman nai izan parte
azturik lege kontua.

3

Baiñan ixilik apartatzea
Josek erabaki zuan
arrats batean lotaratuta
asmo onetan zeguan.
Jaunak aingeru bat biraldurik
esana zion orduan.
Dabid erregen semea zala
Josek oroitzen al zuan.

4

Jose etzazu bildurrik izan
emaztea lagatzeko
Jaun Espiritu Santuan lana
izan du aurra sortzeko
argitaratuko du seme bat
bere erria salbatzeko,
eskatzen dizut seme orreri
Jesus izena jartzeko!

5

Onela dana gertatu zan au
zeturrena etortzeko.
Igarle santu Isaias'ek
idatzia betetzeko.
“Ara Birjiña seme bat sortu
eta argitaratzeko,
Jainkoa gugan esan nai duan
Emanuel izendatzeko”.

6

Ondorenean esnaratu zan
Jose ametsetatikan
ta egin zuan Jaunaren naia
entzun bezela pozikan.
Etzuan laga bere emeztea
aurdun argitu gantikan.
Ikutu gabe zuan seme bat
zeukan Jesus deiturikan.

ALDALUR'tar Justiñe
(klaratarra)
(Gasteiz)

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ATENEA TA ARANE NESKA EULEA (GREZIA)

Jainkoak izan ziran gizakiai lana egiten irakatsi eutseenak: Margolaritza, argintza, eungintza... baiña gizakiak ez ziran iñoz jainkoen bestean trebeak izatera eltzen. Lana ondo egiten ikasi arren be, gizakiak iñoz ez eban esango jainkoaren bestean trebea zanik.

Izan zan bein baten neska bat ausarta, Atenea baiño eule ohea zala uste ebana. Grezia'ko Kolofon errian bizi zan au eta Arane zan beronen izena.

Arrigarriak ei ziran onek egiten ebazan soingaiñekoak, urre-ariz eta purpuraz eioak. Eundegian lanean asten zanean, zoratuta lez egoten ei ziran bere etxeoak eta ingurukoak: Atzamarrak bizkor erabilten ebazan, eta margolari bizkorrenak atera eikezan baiño zapi ederragoak ateraten ebazan Arane'k eta zapiak agertzen ebazan giza-emakumeak eta abereak naiz gaiñetikoak bizi-biziak ziran.

Ikusle asko joaten jakozan Arane'ri berak egindako lanak ikustera eta ago betez autortzen eben ez zala izango munduan beste bat berak beste ondo eioten ebanik.

Orregaitik egoan Arane oso arrotuta eta bere artean pen-



tsaten eban Atenea bera baiño be artetsuagoa zala eungintzalanean.

Jakin eban Atenea Jainkoseak arrokeri orren barria eta sutan jarri zan. Mundura jatzi zan neska orren arrokeria zigortzera. Baiña asieran laiño batek estalduta agertu zan ezagutu ez egien. Sartu zan euntegira eta Arane'ri bagira-begira gelditu zan. Arrituta ikusi ebazan Arene'ren atzamar bizkorrak, ederto erabilten ebezan ariak, iñoz nastatu barik, irudiak margo ederrez apaintzen ebazan. Ezin ukatu iñork, benetan artetsua zala neskea.

Zapia amaitu ebanean, Arane bera lanari begira irribarrez egoala, arrokeria eukala igarri ebanean, Atenea nastatu egin zan bere barruan, eta inguruko laiñoa kenduta agertu jakon neskeari asarre, eta bekaizkeriak eraginda, esan eutson:

– Neska eroa! Zer uste don? Jainkosa beste aizala? Laster ikusiko diñagu!

Biak batera asi ziran zapi barri bana eioten. Ez zan sekula olako probarik ikusi, ez zeruan eta ez lurrian!

Arane'k jainkoen arteko ipuin bat eundu eban. Margorik ederren eta bizenagaz, agertzen ziran lagun guztiak bizi-bizi, zapien eunduk barik benetako norriak zirala zirudien.

Atenea'k Olinpo'ko bizi zoragarria eundu eban bere zapien. Ostarkuaren margo biziak agertzen ziran, eta eguzkiak baiño be argi geiago zabaltzen eban zapi arek.

Arene'ren zapia ederra ta zoragarria zan baiña itsutu egiten eban Atenea'ren zapi ikusgarriak bere argitasunagaz.

Amaitu ebezan biak euren lanak eta begiratu eutson Arene'k Atenea'ren zapiari eta begiak eskuakaz estaldu egin bear izan ebazan zapiak agertzen eban argitasun biziagaitik. Eta autortu eutson Jainkoseari bera baiño askoz artetsuagoa zala eta bere aurrean makurtzen zala.

– Orra ba, gazte arro ori! Ausarta izan aiz jaikoekin eure burua bardintzen eta orregaitik zigortu egingo aunat! Beti izango aiz eule trebe eta artetsu, baiña zomorro itxusi biurtuta.

Ori esanaz batera, Ateneak lepoan ikutu eban Arane eta armiarma biurtuta geratu zan. Arrezkero or diardu beti eunak egiten zoko eta bazter guztietan. Orregaitik esaten dautse “arane” greziatarrak guk euskaldunak armiarma esaten dautsagun zomorro motzari.

OLAZAR'tar Martin'ek

BIZITZA BIAK ETA ABIAK

Ezkutuki aundi bat aurkitzen dogu zomorrotan: Bitan jaioten dirala.

Arrautzatik urteten diranean orugak edo kokoak dira eta ez dauke iñondik be gurasoen antzik, baiña gero krisalidara sartzen dira eta oiturak eta itxurak aldatu egiten dabez.

Batzutan aldakuntza ori astiro egiten da, beste batzutan bat-batean. Eta azkenean gurasoen antzekoa dan zomorroak urteten dau, adibidez, “prozesionariak” edo ibiltariak deritxegun millak oruga edo kokoak, millak mintxi koloretsu biurtzen dira.

Lenengo zomorroak arrautzak egiten dauz eta arrautzetatik agertzen da zomorrotaldea, esaterako saltamatxino geldiak milla arrautza egiten dauz, ibiltariak, ostera, 300 baiño ez. Zomorrotzuk bizitza guztian arrautza bat baiño ez dabe egiten, euliak, ostera, seireun milla arrautza egiten dauz.

Zorri uledunak bat egiten dau, bera dan beste-koa. Arrautzarik politenak mintxiarenak dira.

Arrautza bat naiz asko egin, gordeleku on baten egiten dabez, batez be lurpean, eta jaioten dan kokoak antxe aurkitzen dau jatekoa. Landare-tan eta igalien barruetan be egiten dabez..

Zomorroak onak dira abiak egiten, lana ondo egitea jake atsegin. Lurra zulatu metro-erdi berantza eta an sartzen dabez janariak, berogailluakaz batera. Lurpeko bide luze ori euren anka txikiakaz egiten dabe, txirri-txiriak egiten dauan zuloaren antzera.

Or sakonean egiten dauz arrautzak eta dana lurrez estaldu.


Batzuk, euren buruak babesteko, seda-antzeko bat egiten dautsoe abiari inguruan, beste batzuk zurean egiten dabe abia, 30 zm kkoa, eta gelatxu ba- koitxean arrautza bat ipiñi.

Beste batzuk buztinlariak eta igeltzeruak dira. Oneik eguzkiak jotzen dauan lekuan egiten dabez euren umeentzat lekuak, lurpe-zulo biurrietan eta zuloa barrenean dala, ura sartu ez daiten. Gorantza 3 zm., alboetan ormak dabezela eta janariak ugari arrautzentzat dan lekuan.

KAKARRALDOA

Izen aundiko zomorroa da au, ederra, bikaiña. Ejipto'n, orain bi milla urte, zoriona etorteko eta kalte guztiak kentzeko bidea zala uste eben, fenizioak, ostera, jainko egilleak bialdua zala sinistuta egozan.

Sats eta korotz-zalea da, baiña ez ain jatuna. Gogoko jakozan janariak pillatu eta gorde egiten dauz, bola txikiak eginda eta zuloan. Gero jaki ori astiro gozatzen dau. Iñoz lagunen bat eroaten dau etxera, biak batera jateko.



Kakarraldoen abia

Arriagarriak dira kakarraldoren abi orreik, euren apalakaz.

Beste zomorrotzuk oial-egilleak dira: Zulo barriak egin barik, lengoak barriro jantzi egiten dabez, beste zomorrotzen batek itziak edo enbor naiz sustrai baten barruan dagozan utsuneak. Orriak eta uleak eroaten dabez, berogailluak be bai. Egiña dan zuloa apaintzen dabelako edo zabaldu ta aunditu egiten dabelako oial-egilleak deritxegu onei. Eta gero sarrera itxi egiten dabe orri bategaz. Iñoz zulo orretan amar-bat abi egiten dabez.

Ba-dago erle bat karakolaren azal-barruan abia egiten dauana.

Beste batzuk tabako papela batzen dan antzera batzen dabe abia, esaterako baba-zorriak. Txikia da baiña orri baten atzean egin leike olako lana eta iñoz lan ori egiteko zorri asko alkartzen dira, gero abia guztientzat izatekotan.

Erleak argizaia egiten dabe eta orregaz umeentzat abiak gertatu. Orretarako zugatzen enbor zulatuak aurkitzen dabez. Iñoz ez dabe egiten eurak erlontzirik

Gauza asko ikasi geinkez zomorrotengatik gizakien bizitzararako!

OLAZAR'tar Martin'ek

JUAN ANTONIO MOGEL(1745-1804)

BIZITZA TA LANAK

Mogeldarren artean ezagunena dogun Juan Antonio au Eibar´en jaioa dogu. Abadea izan zan eta 1770n. urtean Markiña´n egoan abade eta antxe il zan gaisoa begirutzen ebillala kutsututa. Izan be oso seerbitzaillea zan.

Bost liburu idatzi ebazan euskeraz, baiña Peru Abarka deritxona da ezagunena. Auxe dala esan geinke euskeraz idatzitako lenengo elebarria edo nobelea (1881). 240 orrialde dira. Ez da ba luze-luzea baiña bai irakurteko atsegiña.

Ona emen liburu onen gaia:Norki bi agertzen dira alkar-izketan, bakoitxak bere kultura daroala: Maixu Juan osagillea-edo da eta euskeraz txarto egiten dau jakituna izan arren eta Peru baserritarra da, baiña baserriko Ikastexte Nagusian ondo ikasi dau euskerea.

Elebarriaren barruan liñuaren lana azaltzen da eta jakintza-arlo orretan egoan iztegia ikasteko oso egokia da. Gero olako itz egoki asko galdu egin dira.

Irakurleak ardura apur bat artu bear dau Mogel´en akats bat beragandu ez dagian. Mogel´ek bere aldiko beste askoren antzera, joskera oso txarra dauko: Latiñaren joskereagaz josten dau euskerea.

Ona emen elebarri onen zati bat, naikoa luzea, irakurleak irakurri eta aztertu dagian.

PERU ABARKA´REN ETXALDEA

Peru´k bere etxaldera daroa Maisu Juan, eta ango zer guztiak erakusten dautsoz.

Zurturik geratuko dira nire umeak zu zakusezanean, etorri ez oi dalako ona zu baizen gizon apaindurik;igesko dabe zokondoetara kuiak legez.

M.J.-Peru,atea jo baiño lenago esaidazu, arren, zer da kuia?

P.-Zuek konejua esaten deutzazuna; ta esaten jako kuia kuika edo kukuiska legez dabilzalako, emen urten, an sartu, buruak orain agertu ta gero ezkutetan.

M.J.-Peru, txakur zaunkea da, ta aundiarena. Oratuten badeust?

P.- Ez bildur izan: bakarrik etorri banintz, ezaban zaunka aserre usaiñekorik egingo ta bai urten bidera pozkariatz ailleari eragin ta parlantzuan neugaz ibilteko; egingo zituan pozezko intziriak. Etzaitu usigituko neugaz

zakusazanean, igarriko deutzulako zatozela bake, ta ez ezer eroatera. Txakurrari dagoka zaunka egitea, ta etxeur ta inguruan ibiltea.

Ogi puzka bategaiti, zelango oniritxi ta asko-gurea artuten ezteutsa bere ugazabari? Makillaka banatuarren ugazabak, intziri illetazkoak egingo ditu, ez baiña jarki eta agiñik erakutsi. To to bat esan orduko entzuten dau ta igarten dau ardi, auntz, idi edo beiren bat dabillela soloan, ta ateraten ditu arin onean. Urtik esaten bajako, alde egingo dau maiaren alboti, goserik andiena badauka bere; alperrik izango da gosesto salobrea.

Ipiñi gura zaitut gauza askoren jakitun, etxean sartu orduko, daukat Jaungoikoak emanda, emazte otzan, bake-tsu, euli bati bere gaxik egingo eleuskiona. Asten ditu umeak lotsa onean, mankau baga, ondo esanaz ta Jaungoikoaren bildurra irakatsiaz. Zorionez umeak eurak bere esaneakoak dira, jatorriz legez; eztakie erremuskada, beko-ki illun, ta mustur-astinketarik egiten.

Eztozu entzungo nire etxean biraorik, ez baraila, ospe astralaka, ta iskibidurik, bai berba onak Eleizako gauzak ta bake betikoa.

Daukadaz seme bi ta beste ainbeste alaba. Gari ta artoak daukadaz giltz baga ganbara zabalean; bada daukadazan otseiñak bere, azi ditugu geure umeak bagenduz legez, alkar maite dogula. Iñoren basori orri bat kenduten etxako, bai zaindu ondo geureak.

Orregaitiño Jaungoikoak emoten dausku gauzea ugari; topiñ ona beti izaten da; ilten dogu lauoiñeko gizona, idi lodi zezin ederra dabena. Euren denporetan izaten da jan al baiño geiago kastaiña ta sagar. Urte guztian, esaterako, daukagu eznea ta aurreratuten ditugu diruak lagunduteko gero umeai, aututen dabeen bizieran. (Peru Abarka,irugarren autua).

OLAZAR´tar Martin´ek



AIDEAN GUDA BIEN BITARTEAN

Egazkiñak sortzen edo asmatzen asi ziranetik uste izan eben tramankulu oneik onak izango zirala gudarako. Wright anaiei ustez, egazkiñak guda guztien azkena ekarriko eben.

1914n. urtean sortu zan munduko lenengo gudea. Asi ziran asmata egozan tramankuluak erabilten: Etsaik non dagozen begiratzeko, oarrak bialtzeko, gizakiak arin toki batera eroateko, eta guda bera egiteko.

Zeppelinak artu ebezan, baiña oneik errezegi botaten ziran tiroka.

Geroago artu ebezan Laterri Alkartuak eta alemanak bonbak botateko eta batez be asieran inguruak aztertzeko, baiña oneik be laster asi ziran alkarrari tiroka edo gudea egiten

Asmatzaille batek elize ta ametralladora alkartu ebazan, bitarteetatik balak jaurtiteko moduan, baiña ondorena ez zan izan ain ona. Dana dala, Garros'ek 18 egunean bost egazkin aleman bota ebazan.

1915n. urtean Garros bera alemanak arrapau eben eta aren egazkiña aztertu. Obetu egin eben Garros'en eredia balak eta motorra alkartuta, ez elizea. Egazkiña guda-gaillu biurtu eben.

Aleman batek larogei egazkin ingles bota ebazan, beste batek 75 eta Kanada'ko batek 72.

Gudara egazkiñakaz urteea eriotzarako bidea artzea zan. Orrelan etsaiak be alkarren lagun biurtzen ziran, baiña alkar ilteko agindua euken eta bete egin bear. Gero illobiratzeguna ospatzen ebenean etsaiak illerrira urreratu eta lorak botaten eutseezan.

1917n. urtean sartu ziran gudara USA'tarrak.

Frantzia zan egazkiñez ondoen ornidua, 1.500 egazkin eukazan, Alemania'k 1.000, Bretañak 150 eta USA'k 100.

Egazkin azkarragoak egiten asi ziran eta lerkai eroaleak be egin ebezan.

Gerrateko egazkinlariak etxera etorri ziranean, pozik egozan ezer egiten ez ebelako, lanbakoien antzera ikusten eben euren burua. Egazkiñak saldu egin ebezan eta erosleak egazkin orreik irabazbide izan daitezcan aideko komediak egiten asi ziran: Errien gaiñetik egaz ibilli, jentea kobrauta egazkiñean erabili, eta egazkin biren artean komediak egin. Batzuk ola-koetan il be egin ziran eta irabazia laburra zan.

Laster asi ziran egazkiñak ibillaldi luzeak egiten. London'eko Daily Mail egunkariak amar milla libera eskiñi ebazan Atlantik Itxasoa gelditu barik igaroten ebanarentzat. 1919n. urtean iruk artu eben bide ori, bi itxasora jausi ziran eta irugarrena eldu zan maiatzaren 31n. egunean, 3.936 millako bidea 52 ordutan eginda.

Urrengo illean Ingalaterra'tik Australia'ra joan ziran: 18 000 km 56 ordutan. Geroago Alaska'ra ,7.000 km 56 ordutan.

Pozgarria da gaur munduko uri aundi guztiak egazkiñez alkar-lotuta ikustea.

1922n. urtean abiadea orduko 300 km. zan eta goierea 10.535 m.

1926n. urtean Plus Ultra ekiñaldia izan zan: Palos'tik urten eta Buenos Aires'era

Asi ziran egazkiñak zamak eta notiñak ugari eroaten be. Or etorkizun zabala agari zan. 1920n. urtean izan ziran lenengoak Europa'n eeta 1926n. urtean USA'n. 1920-1930 urteen bitar-



tean asi ziran Europa'tik USA'ra bidaiak, orduko 160 km egiten ebezela DC-4 egazkiñak eta 29 notin eroaten ebezan. 1930n. urtean artu eben lenengo azafatea.

Zertarako geiago egazkiñak? Bidai edo korreoa eroateko, saleroskiak eroateko ta ekarteko, kegaz zabalkundea egiteko, argazkiak aterateko, mapak obetzeko, mamorroen aurkako autsak botateko, artaldeak eta abelgorriak lur zabaletan zain-tzeko, basoetako suak amatetako, edurtzetan baserrietara janariak eroateko, urioletan jentea salbatzeko, eta, zori txarrez, aideko gudak egiteko... Laster ikusi zan aidearen indar ikaragarria...

Hitler'ek egokitu ebazan gudarako indar oneik: 1939n. urtean Polonia'n, 1940n. urtean Ingalaterra'ten aurka dana aidean, eta 14.000 il eta 20.000 zauritu egin ebazan. Ingalaterra'k gogor erantzun eban eta Alemania'k atzera egin -bearra izan eban

1941n. urtean Japoi'k egin eban egazkinen gudea: 90 minututan lau akorazadu, daragamina bat eta gudako itxas-ontzi asko zapuztu ebazan. Beste lau akorazadu, iru kruzeru, ontzi bat ikututa geratu ziran. 2086 gudari amerikar il ziran eta 794 zauritu. Urrengo gudaldian 64 egazkin bota ebazan.

Munduko II Guda'ko egazkiñak asko aurreratuta egozan: 59 laterrik egin eben guda, baiña aidean USA, Ingalaterra, Errusia, Alemania ta Japoi baiño ez.

Roosebelt'ek 50.000 egazkin egiteko agindua emon eban 1940n. urtean eta 1944n. ean 96.328 egin ebazan Japoi'k be orretan lan aundia egin eban.

1944n. urtean Alemania'k eredu barri bat atera eban: orduko 800 km. ko abiada, elizebakoa. Oneik ziran kedun egazkiñak edo erreaktorak.

Egazkiñen ostean, zu.ziri edo "koete"en sasoi eldu zan, batez be guda otzaren aldian, Errusia eta USA sendotzeko. Zuziriak alkarren aurka eta begira egozan Lenengo su-ziriak alemanen V-1 eta V-2 izan ziran Oneik 8.000 km. ko bidea egin eikeen, orduko 1000 km. eginda.

Egazkiñak onura asko ekarri dauskuez, baiña gudetan kalte ikaragarriak be bai. Ez doguz aitzu bearke USA'ko egazkin batek Japon'en atomozko lerkai bi bota ebazala, Nagasaki'n bata eta Hirosima'n bestea. Kalteak sinistu eziñekoak, baiña guda amaitzeko bidea izan zan.

Paraisoaren bazter baten beti dago zuge bat!

OLAZAR'tar Martin'ek

ANDRA MARI DANTZA-TALDEA

(Azkena)

GALDAKAO TALDEKA DANTZARI

Udalaren antolamentuz euskal dantza pare baten irakas-keta Kurtze'n egiten zan, bai 1947'an eta lenago be.

Dantza-saioak, antza, negu-aldean egiten ziran, gerra-aurrean batzokia izan zan tokian, batzokian "casa Roja" esaten eutsen eta uadaletxearen naiko alboan zegoen. Dantzaren irakasle eta dantzari be Karmen Intxausti izaten ei zan. Loli Roddriguez andra, 12urte ebazala, 1947'an beste neska batzuk dantzatu eban. Karmele Ibarra'k be dantzatu eban Karmen Intxausti irakasle zala.

Karmelegandik dakit Teatro Buenos Aires'en Galdakao'koak beste taldeen artean lernengo saria irabazi ebela. Nire eskerrik beroenak zuei, Maite Urrutikoetxea, Karmele Ibarra eta Loli Rodriguez'eri eta geiagori be, emon zeunstezan barri onakaitik. Eta beste barri batzukaitik be.

15 urte zituala, or ingurumarian, Karmele Ibarra'k Tximelarre auzoan San Ignazio jaietan jota-dantzaren txapelketan lenengo saria irabazi eban, mutil-lagun Zugutzu'ko barn+berue Etxebarria ebala eta euroi emon eutsezan sari lez 375 pezeta- Bigarren saria Karmele'ren aizta Bwegoña'k eta bere dantza-lagunak lortu eben.

ZUGUTZU'KO MOJETAN

Zugutzuko'mojetako eskoletan Grabe jaunaren alaba antza, "Seccion femenina"koa izanik euskal dantzak irakasten ibilli zan. 1951'n eta Kontxi Gaintza'k bertan dantzatu eban. Gero katoliko-ekintzan dantzatu eban. Eta 1957'an Andra Mari Dantza-Taldea sortu zanean bera be taldearen sortzaille beste nesna-lagun batzukaz izan zan. Zugutzu'ko neska dantzari asko gero Kuirtze'n egoan "Seccion femenina" ko dantza talde'tra be joan ei ziran.

1960, 1962 eta 1964garren urteetan Andra Mari dantza-taldeko Mariangeles Lara Zugutzu'ko mojetara joan zan dantzan irakasten.

ERLETXEETAKO ESKOLETAN EUSKAL DANTZAK

Dantzaren irakaslea, eskoletako inspektora zan andra bat izaten zan. "Sección femenina"koa bera. Bein Zorrontza'ko "Sección femenina"ko tokian be dantzatu eben Erletxeetako eskolako umetxo areik eta ori 1950n. urtean izan zan. Dantzan egin eben neskatilla txortatxokoak oneixek dira: Pilar Maguregi, Emilia Artetxe, Rosa Mari Barandiaran, Edurne Zamalloa, Anjelita Jaio, Anjelita Legorreta, Txaro Baraia, Maria Luisa Baraia, Mertxe Esparza, Begoña Zarrabeitia, Gloria Zarrabeitia eta Asun Legarreta.



Argazkiko neskatillak eurak dira. Eskerrik asko zuri, Txaro, izenak eta argazkia emon daustazualako.

1946-1947.– Loli Rodrigez eta beste neska batzuk be, orduko urteetan euskal dantzak “Sección femenina”n egiten ebezan.

1950´ean eta urte onen inguruan “Sección femenina”koak euskal dantza pare bat Erletxeetako eskolako neskatillai irakasten eutsezan.

1950-1951 urteetan udaletxeko toki baten , neskak, euskal dantza pare bat dantzatzan ei ebezan.

1950´ean Karmele Ibarra´k eta beste neska batzuk be, udaletxearen antolamentuz dantza-saioak negu-partean egiten ebezan eta dantza-tokia Casa Roja edo Batzokia izaten zan.

Karmele Ibarra´k jota eta arin-arin dantzak bere amama gipuzkoarrak, Paula Zendoia izenekoak irakatsita ekizan eta 15 urtekoa zala urte orretan Tximelarre´ko San Ignazio jaietan Zugutzu´ko barberu Etxebarria jotolariagaz, lenengo saria irabazi eban eta 375 pezeta emon eutsoezan.

1951.– Galdakao´ko neska dantzari-taldeak urte orretan antza Teatro Buenos Aires´en beste dantza-taldeen aurka txapelketa egin eta “danzas regionales” orreitan Galdakao´tarrak lenengo saria irabazi eban.

1952 eta 1956.– Katoliku-ekintza´ko neskatillak 1952n. urtean sakristian dantzatu eban eta 1956n. urtean eleiz,abade-etxe eta kamiñoaren artean dantzatu ebezan euren dantza-pare bat.

1953 eta geiagotan: Usansolo´n musika eta dantzaren baten irasketa egin zan. Eta 1956´tik 1961´era artean Gipuzkoa ta Bizkaian euron ikasketan irakasten ibilli ziran.1958´an “Grupo infantil de Acordeón” be sortu eban.

1954 urtean Begoña´ko Karmelo´n egoan Gaztedi dantza-taldeak Bilbo´tik euren lenengo urteera Galdakao´ko Erletxeetara egin eban. Taldearen banderea Erletxeetako abadeak bedeinkatu eta gero, kamiñoaren bide-kurtzean dantzatu-ondoren Erletxeetan Aita Txanton´en familiaren etxera joan ziran, fraillea be bertokoa zalako eta beragaz egoteko gurariz. Gero Bazkaria erletxeetako tabernan egin eta bazkari ederrean Boni Fernandez txistularia eurokaz egon zan eta txistua ta tanboliña jo ebazan. Taldeak ainbat kantu eder abestu ebazan.

1954.– Udalaren antolamentuz Dr. Gandasegi eskoletan euskal dantzak irakasten ziran, txistularia Egiarte zala.

1954.– Udaletxean, taberna zarra egoan lekuan “Sección femenina”ko neska-taldeak dantza-pare bat dantzatu eban, Altuna ta neu be iñoz an izan gintzazan txistua joten.

1955.– Basauri´ko neska batzukaz euren errian dantza-saio batzuk egin eta 1956n. urtean Poblado Firestone edo Olabarrieta auzoan dantzatu eban, txistulari Etxebarriko Jerman, Galdakao´tik neu eta Basauri´tik atabalerua izan gintzazan.

1956-1957.– Urte bi oneitan Basauri´ko taldeko lau neskak irakatsita, Galdakao´ko Bengoetxe auzoan dantza-talde bat sortu gendun, neu sortzaille nintzala. Lenengo urte bi orreitan dantzaldiak egin genduzan Bengoetxe´n bertan, Poblado Firestone auzoan eta Elexalde auzoan. Orduan, 1957n. urtean Galdakao´n ez egoan beste dantza-talderik, Bengoetxe auzokoa izan ezik.

1956.– Galdakao´ko Udaletxearen toki baten saioak egin eta “Sección femenina”ko plaza-ondoan egoan tokira joan giñan neska-taldea, Altuna ta neu txistulari gintzazala. Eta dantzaldia egin zan. Talde orretako neska bat baiño geiago, urte bat igaro ondoren, Andra Mari dantza-taldearen sortzaille izan ziran, 1957 eta 1958 urteetan.

1956.– Urte onetan Etxebarria jotalaria Katoliku Ekintzan mutillai jota eta arin-arin irakasten ibilli zan. Orduko denporetan bai mutil eta bai neska aspiranteak dantza lotua edo balseoa egitea debekatuta eukiten eban.

1956-12-08: Neu txistulari nintzala, Katoliku Ekintzako neskak, abadetxe ta kamiño artean dantza pare bat dantzatu ebezan.

1957.– Jose Manuel Monasterio orain arte Andra Mari´ko lanetan ez dogu aitatu, baiña 1957n. urtean Sabino Larrea´ren laguntzaillerik aundiena eta azkarrena bera izan zan eta espata-dantzari talde bat egin bear zala ta dantza-maisu bat ekarri bear zala ta danak bereala lanean asi ziran. Baiña espata-dantzari-taldea sortu orduko eta dantza-maisua ekarri-orduko soldaduska egitera joan bear izan eban 1957´ko iraillaren batean. Gero Txinbera etorri eta Andra Mari dantza-taldea sortzen asi zan. Au da bidea jakiteko Andra Mari, Galdakao´ko jaietatik gerora sortzen asi zala. Dana dala, gero Jose Manuel Gernika´ra-eta geugaz etorten zan taldeak dantzan egiten ebanean.

1957- ANDRA MARI TALDEA SORTUKO ZAN BATZAR-AGIRIA

1957 urtean Katoliku Ekintzakoak batzar baten bidez, Andra Mari izena izango eban dantza-talde sortzea lortu eban eta erabagi ori agiri baten idatzita geratu zan.

Bein etxe batera joan nintzan. An jente geiago be egon zan eta Egiarte txistulariak niri begitu eta auxe esan eutan: Aizu! Mariano, ona emen Andra Mari sortu zaneke “Acta fundacional” edo batzar-agiria eta geigo be. Eta orri-mordotxua emon eustan. Nik ikusi neban agiria eta beste orriak eta dana orain arte zaindu eba personeari berari emon neutsazan aurrerantzean be zaindu dagizan. Orri orren zaintzaille orrek Dantza-Taldea´ren eta beste batzun aldetik esker ona merezi dau, baita gogorik onenagaz eta biotzez nire onespina be ba-dauko.

1957.– Azaroaren 22án Santa Zezilia eguna zala-ta, musiku ta abeslarien zaindaria danez egun ori ospatzeko, Galdakao´n orduko denporan oraindiño Andra Mari dantza-talderik ez egoan lez, Galdakao´ko koralak abenduan Bego-

DANTZAK

ña'ko Karmelo'tik Gaztedi dantza-taldea ekarri eban Zine Regio'n zaindariaren jaialdia ospatzeko, musiku ta koralak be egun orretan parte artu eben.

1958.– Katoliku Ekintza'k 1958n. urteko urriaren 12'an txapel gorri eta 121 garriko gorri ekarri ebazan, guk eurokaz eta zuriz jantzita 1958n. urteko San Andres egunean dantzatzeko. Andra Mari dantza-taldeak bere lenengo dantza agerketa, iñozko dantza-agerketa, Usansolo'n egin eban. Ortik, 2008n. urtean izango dira 50 urte Andra Mari'k lenengoz jantzan egin ebala eta 1957'an taldea sortu zan lez., 50n. urte ori 2 007n. urtean izango da.

1963.– Kurtzeko eleizearen sakristian obrak egin bear zirala-ta, Andra Mari dantza-taldeak Zugutzu'ko eleizearen arkupeetara joan-bearra izan genduan ille pare bat edo irurako beintzat. Eta Kurtzeko sakristiko lanak amaitzen ziranean, bertora itzuliko giñan.

1966n. urtean, sakristi-barruan, dantzariak makil eta ezpata zarata aundiak egiten ebezelako, eleiz-barrukoak eleiz-barruan egoten ziranean, bein baiño sarriago zaratots aundiak egiten ziran lez, eleiz-barruan entzun egiten ziran, sakristiaren eta dantzarien bitartean ate bat baiño ez egoalako.

Jainkoaren langintza santua egiten zanean eta dantzariak euren ekiñaldietan ibilli, abarrotsak entzuten ziran eta orduan ezpatadantzariak eleizako sakristitik joateko eskatu euskuen, naita denpora-aldi baten neskak, gerobe bertoneukiten ebezan saio batzuk.

Eta ezpata ta dantza-tresnak denpora-aldi baten bertoneukiten itzi euskuen. Dantza-saioak urtean geunkazan lez, Zugutzu'ko eleizearen arkupean saio-pare bat edo ez dakit zenbat eginda, ortik Pontzi Zabala jaunaren garajera joan giñan eta Bixente Elorriaga txistulari jaunaren txabolan saioak egin eta gero denpora luzean Pontzi Zabala osagille jaunaren berebiltegi saioak egiten jarraitu gendun. Eta giro onetan taldearentzat toki bat bearko zala bereala bururatu jakun.

Olak ekarri eta arotzen bearrak bariku-zapatu eta jai egunetan Bixente Elorriaga txistulariak eta beste arotz batzuren laguntzaz, batez be Sabin Alonso'k ta Jose Uriarte'k orretarako ardura aundia artuta, lan osoa doain egin eben eta taldeak dirurik ez eukan lez, olak Bixente'k berak ordaindu ebazan eta taldeko diru apur bat lortu ebanean, taldeko sekretario jaunak Bixente'ri olaren dirua ordaindu eutson.

Andra Mari dantza-taldeak beti euki dauz laguntzailleak, euskal gauzak beti modu eta giro onean egin dauzalako eta egiten ditualako.

ZER aldizkariak 2005n. urtean, 302n. zenbakian, 17n. orrialdean auxe esaten eban: Andra Mari dantza-taldea ez

zala sortu 1957n. urtean, 1955n'ean baiño eta ori orain 25 urte (1980) kontrastatu zala, baita Barrenetxea'tar Jose Mariano ez dala gai Andra Mari dantza-taldearen izenaz berbarik egiteko.

Ba, lenengo ta bein Mariano'k zerbait eta edozer egiten dauanean edo edozeri buruz idazten dauanean, nik neure izen eta abizenak erabilten dodaz eta ez besterik. Eta nik Andra Mari'ren izenean barik, Andra Mari Taldeari buruz taldearen sortzaille zarren laguntzaz eta Gaztedi dantza-taldearen laguntzaz idazten dot, gaurko batzordeak gauza asko ez dakizelako eta guk zarrak ba-dakiguzalako.

Beste alde batetik, gaurko batzordeak 1980'an 25 urte bazirala ze dantza-taldea 1955n. urtean sortu zala eta ori ondo kontrastatuta dagoala ba'diño, gaurko batzordeak demostratu egin bearko dau diñoen guzti ori, eta ori ez dabe iñoz be egingo ze 1980n. urtean anka-sartze aundia egin eben eta ez dabe zuzendu arrokeria gauza gorrotagarria dalako. Eta ez jakin gura izatea ez dala egin leikean gauzea, ze taldearen lokalean 23n. urtea 25n'eko biurtu eben. Prisa aundia artu eben ori orrelan egiteko ze 25n. urtea 1982n. urtean izan zan eta ez 1980n. ean. Eta argi ta garbi azaltzen da DEIA 1979-09-15, egun orretako 14n. orrialdean Galdakao'ko Andra Mari dantza-taldeari buruz auxe diñoanean: 1957n. urtean Andra Mari dantza-taldea sortu zala eta bere lenengo dantza-saioa 1958n. urtean San Andres egunean egin ebala eta emendik kanpo dana da edo guzurra edo errakuntzea. Internet'en bidez dantza-taldeak, gauza asko argitaratzen dauz, baiña gaurko batzordeak euren 1955 errakuntza orretan asi eta 1965n. urtera arte auxe diño: 1955n. urtean Eleiza katolikuaren babesa eta laguntzarekin, Galdakao'ko gazte batzuk Andra Mari Eusko Dantza-Taldea sortu eben, urte gitxiren barruan eta lan ikaragarri baten ondoren Euskalerriko mundu kulturalean leku bat aurkitu eta sendotu ebela. 1965n. urtetik gaur egundaiño...

Guk Andra Mari Dantza-Taldeko sortzaille zarrak, geure lan asko eta onak egin genduzan, gerokoak be asko eta ondo egin eben, eta zuek be, gaurkook, lan asko eta onak egiten dozuez, eta jarraitu orrelan, ondorioak gero ikusiko dirata. (Azkena)

JOSE MARIANO BARRENETXEA



MANTXURIA



Lurralde naikoa zabala da., España ta Frantze alkartuta izango litzakezan bestekoa.

Zati bitan banatzen da: Iparralde menditsua da bata eta sartaldeko lur malkarrak bestea.

Artzain ibiltariak ziran antxiña, eta mongoliarren aurretikoak ziran. Geroago artu dabe Mantxuriar izena gudazale indartsu oneik.

1616n. urtean alkartu ziran eta orduan lortu eben lenengo erreñua, Naurhatxu lenengo agintaria ebela. Onek Txina menperatu nai izan eban baiña beronen gudari azkarrak Txina'ko arresi aundian sartzen ikusi al izateko beste denporan ez zan bizi izan.

Andik laster menperatu eben Txina, 1644n. urtean. Eta orrelan jarraitu eben 1911n. urtera arte. Urte onetan kendu eben azkenengo erregiña alarguna.

Mantxuritarrek eta txinatarrak alkarrekin ezkontzea debeatuta egoan. Euren etxeak itzi barik, Txina'ren iparraldean jarri ziran bizi izaten eta lengo etxeetara udan edo ekizarako joaten ziran.

Gobernu-era zarrak iraun eban eta millaka txinatar izendatu ebezan gobernatzaile mantxuriarri laguntzeko. Erriko Batzar Nagusiko erdiak ziran txinatarrak.

Gero euren lurak txinatarrak saltzen asi ziran eta txinatarrak pozik lur orreik artzeko. Orrelan Mantxuria'n be txinatarrak egin ziran nagusi, ez ezpatakaz, goldakaz baiño.

Mantxuriar emekumeak ez eben ankarik lotzen txinatarrak lez, alkarragaz ezkontzeko baimena emon eben. Guztiak jarri ziran "mandarin" en oiturapean

XVII eta XVIII gizaldietan, Kang eta Txing erege zirala, lortu eban Txina'k aginpiderik aundiena eta ipar-aldeko basatiak be ederti-zale biurtu ziran. Au izan zan Txina'ko elertiaren urre-sasoia. Orduan idatzi ziran ango libururik jotarrenak, iztegiak, enziklopediak, edestiak eta lutelesti-lanak. Orduan egin ziran buztiñezko eta portzelanazko lanik ederrenak, munduko onenak.

Azkenengo eun urtetan erregeak asko makaldu dira eta Txina'ra erbesteko modak sartzen asi diran antzera, mantxuritarrek be or nastatu dira eta euren lurraldea errusitarren sarbide biurtu zan.

Mosku'tik Bladistok'eraño trena egin zan, Matxuria'ren erdi-erditik.

Mantxuria'ko trenak lurralde osoa industriara sartzea lortu dabe. Europartu egin dira. Asiak garitegia itzi eta egurra, artilea,, ikatza, burdinkiak, lekak, olio, narruak eta olakoak artu dauz aberats-bide. Laba Aundiak, kimika-lantegiak jaboi-olak, auto ta bagoigintzak, ontzi-olak eta zerra-olak eta beste ola asko sortu dira an.

Gauza guzti oneik kanpoko dirua sartu dabe Mantxuria'ra. Lenago Errusia eta Japon ibilli ziran Mantxuria menperatugurean, baiña azkenean Txina'ko Errepublikeak, komunistak, eurengandu dabe lurralde au.

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

BBK

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²